

HARREMANAK:

Saltzailearen eta bezeroaren arteko harremana, harreman pertsonala izango da, zuzena, gure langileak bezeroekin denbora pasako dutelako. Administrazio, telefono eta e-mailaren bitarteko harremana izango da, eta han informazioa eskuragarri izango dute. Aplikazioan eskuragarri izango dute nahi duten ekintzak aukeratzeko, 24h eskuragarri.

Lehen esan bezala, harremanak egingo ditugu gure herriko enpresa txikiekin, hau da, herriko dendak edo supermerkatu txikiekin. Horrela bidezko merkataritza sustatzen dugu eta gure inguruan ditugun dendak hazten laguntzen ditugu. Horiengandik irabazien %15a jasoko du gure enpresak. Gainera, taxi zerbitzua izango dugu gure bezeroak edo langileak alde batetik bestera joan ahal izateko eta haiek bezero berriak lortzearen truke, irabazien %10a eskainiko digute.

Gainera harremanak edukiko ditugu hartzaindegiekin, egueneko zentroekin eta jubilatuen etxearekin.